



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2005eko apirilaren 26a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:15 **AMAIERA-ORDUA:** 19:40

BERTARATUAK: **Alkatea**

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solaberrieta, Andoni Sarasua Oliden, Noemi Ostolaza Arkauz, Eugenio Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi



Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, 2005eko martxoaren 29ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, udal bulegoen eta eskola zentroyen garbiketako pertsonalaren ordainsari mailaren aldaketa.
3. Onartzea, egoki bada, Orioko Pelotari eta Iturbide Kaleen berrurbanizazio obren kontratazioa, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
4. Onartzea, egoki bada, Orioko Munto eremuan futbol/sofbol zelaia eta garajeak egiteko obren kontratazioa, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
5. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO MARTXOAREN 29KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2005eko martxoaren 29ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL BULEGOEN ETA ESKOLA ZENTROEN GARBIKETAKO PERTSONALAREN ORDAINSARI MAILAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, udal bulegoen eta eskola zentroen garbiketako pertsonalaren ordainsari mailaren aldaketa.

Aldaketa honako hau da: EUFALEABEko 5. mailatik 6. mailara pasatzea, eta 2005eko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.



3. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO PELOTARI ETA ITURBIDE KALEEN BERRURBANIZAZIO OBREN KONTRATAZIOA, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du, hau da, Orioko Pelotari eta Iturbide kaleen berrurbanizazio obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratibo Partikularren berri, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiaz, ohiko tramitazioaz eta lehiaketa bidez, 2005eko otsailaren 4an Gipuzkoako Foru Aldundiaren 23. Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Obrak esleitzeko irekitako baliozko epean, ondorengo lehiakideak aurkeztu dira aipatu kontrataziorako:

1.- A.B.E.E. (U.T.E.), “URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.” eta “CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.” enpresek osatua.

2.- A.B.E.E. (U.T.E.), “CONSTRUCCIONES FRESNEDA, S.L.” eta “NOI, S.A.L.” enpresek osatua.

3.- FONORTE, S.A.

4.- URAZCA CONSTRUCCIONES, S.A.

5.- CONSTRUCCIONES MOYUA, S.A.

6.- A.B.E.E. (U.T.E.), “OBENASA” eta “OBEGISA” enpresek osatua.

7.- CONSTRUCCIONES ARKAITZA, S.A.

8.- A.B.E.E. (U.T.E.), “SOHERCON, S.A.” eta “KOROSTEL, S.L.” enpresek osatua.

Ikusita kontratazio mahaiak aho batez Orioko Pelotari eta Iturbide kaleen berrurbanizazio obrak egiteko kontratuaren esleipena “**URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.**” eta “**CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.**” enpresek osatuko duten A.B.E.E. (U.T.E.) merkataritza-sozietateari esleitzea



proposatzen duela, puntuaketa altuena lortu duen proposamenaren egilea izanik, Baldintza Plegu Ekonomiko-Administratibo Bereizleen 9. artikulua jasotako irizpideak jarraituz eta Udal Zerbitzu Teknikoak jasotako txostena jarraituz.

Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta Kontratazio Mahaiaren proposamenaz, eta eztabaidatu ondoren, gerturatutako lagunek **AHO BATEZ**, guztira **BAIEZKO HAMAIKA BOTO**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin udalbatza hamaika lagunek osatzen baitute, **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.- Baliozkoa **DEKLARATZEA** 2005eko martxoaren 7an egindako pleguen irekiera.

BIGARREN.- **BEHIN BETIKO ESLEITZEA** Orioko Pelotari eta Itrubide kaleen berrurbanizazio obrak egiteko kontratua, egitasmo teknikoaren arabera, “**URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.**” eta “**CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.**” enpresek osatuko duten A.B.E.E. (U.T.E.) merkataritza-sozietateari, lanen esleipen prezioa **MILIOI BAT BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI MILA EHUN ETA HAMAR euro eta HOGEITA HEMERETZI zentimo (1.567.110,39.-)** izanik –Gastu Orokorrak, Irabazi Industrialak eta B.E.Z. barne–.

HIRUGARREN.- **ITZULTZEA** behin behineko fidantzak lehiaketa honetan aurkeztutako lizitatzailerei.

LAUGARREN.- **JAKINARAZTEA** Udalaren ebazpen hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakinaren gainean egon daitezen, dagozkion ondorioak eta errekurtsio legalak izan ditzan.



4. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO MUNTO EREMUAN FUTBOL/SOFBOL ZELAIA ETA GARAJEAK EGITEKO OBREN KONTRATAZIOA, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du, hau da, Orioko Munto eremuan futbol/sofbol zelaia eta garajeak egiteko obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratibo Partikularren berri, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiaz, ohiko tramitazioaz eta lehiaketa bidez, 2005eko martxoaren 18an Gipuzkoako Foru Aldundiaren 53. Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Obrak esleitzeko irekitako baliozko epean, ondorengo lehiakideak aurkeztu dira aipatu kontrataziorako:

1.- A.B.E.E. (U.T.E.), “OBEGISA”, “OBENASA” eta “ADISA, S.L.” enpresek osatuko dutena.

2.- A.B.E.E. (U.T.E.), “ALTUNA Y URIA, S.A.”, “COBRA, S.A.”, eta “ATIL COBRA, S.A.” enpresek osatuko dutena.

3.- MOYUA, S.A.

4.- FERROVIAL AGROMAN, S.A.

5.- URAZCA CONSTRUCCIONES, S.A.

6.- A.B.E.E. (U.T.E.), “CONSTRUCCIONES BALZOLA, S.A.”, eta “GUILLERMO IBARGOYEN, S.A.” enpresek osatuko dutena.

7.- A.B.E.E. (U.T.E.), “NECSO, S.A.” eta “FONORTE, S.A.” enpresek osatuko dutena.

8.- MURIAS, S.A.

9.- CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L.



10.- BRUES Y FERNANDEZ, S.A.

11.- A.B.E.E. (U.T.E.), “EXISA, S.A.” eta “TRABESNOR,S.L.” enpresek osatuko dutena.

12.- A.B.E.E. (U.T.E.), “ARKAITZA, S.A.” eta “SACYR, S.A.” enpresek osatuko dutena.

13.- DRAGADOS, S.A.

Ikusita kontratazio mahaiak aho batez Orioko Munto eremuan futbol/sofbol zelaia eta garajeak egiteko kontratuaren esleipena “**URAZCA CONSTRUCCIONES, S.A.**” merkataritza-sozietateari esleitzea proposatzen duela, puntuaketa altuena lortu duen proposamenaren egilea izanik, Baldintza Plegu Ekonomiko-Administratibo Bereizleen 9. artikulua jasotako irizpideak jarraituz eta Udal Zerbitzu Teknikoak jasotako txostena jarraituz.

Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta Kontratazio Mahaiaren proposamenaz, eta eztabaidatu ondoren, gerturatutako lagunek **AHO BATEZ**, guztira **BAIEZKO HAMAIKA BOTO**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin udalbatza hamaika lagunek osatzen baitute, **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.- Baliozkoa **DEKLARATZEA** 2005eko apirilaren 18an egindako pleguen irekiera.

BIGARREN.- **BEHIN BETIKO ESLEITZEA** Orioko Munto eremuan futbol/sofbol zelaia eta garajeak egiteko kontratua, egitasmo teknikoaren arabera, “**URAZCA CONSTRUCCIONES, S.A.**” merkataritza-sozietateari, lanen esleipen prezioa **BOST MILIOI BERREHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA eta HAMASEI euro eta LAUROGEITA ZAZPI zentimo (5.236.016,87.-)** izanik –Gastu Orokorrak, Irabazi Industrialak eta B.E.Z. barne–.

HIRUGARREN.- **ITZULTZEA** behin behineko fidantzak lehiaketa honetan aurkeztutako lizitatzaileei.



LAUGARREN.- JAKINARAZTEA Udalaren ebazpen hau enpresa lizitazaile guztiei, jakinaren gainean egon daitezen, dagozkion ondorioak eta errekurso legalak izan ditzan.

5. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez zen izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA